

ZER BERRI EUSKALGINTZAREN ALDEKO MOBILIZAZIOAK HERRIAN
KULTURA MUSIKA ESKOLAK EGOITZA BERRIA BEHAR DU LEHENBAITLEN

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 77. alea 2003ko urriaren 24a



**Bolondresen beharra
aurrera egiteko**



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean



GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



ingurumena
Zure esku dago

**Aurkezteko azken eguna
azaroaren 20an**

**INGURUMENA ZAINDUZ ETXEKO GASTUAK
GUTXITU NAHI DITUZU?**


Eman
ezazu izena,
DOAN,
GAP Programan



GAP (Ekintza Plan Globala)
programan parte hartzen
duten etxeek %20 aurreztu
dezakete urteko gastuetan
eta eskuratu ahal dute
etxea ekologikoa dela
agiazten duen Nazio
Batuen ziurtagiria



Ondarego datuak gutxienez bidera sartu, salua izan eta lehibe honetara bidali:
(Debabarrenako etxetarako)
Izena - abizenak: **GAP-HUSKADI, 3168 posta-kutxa, 48080 Bilbo**
Helbidea:
Posta-kodea:
Herria:
Tfn:



Norberaren datuak lailpekoak dira eta LORTAD legea betez erabiltzen dira



Iker negarrez ari da

MIKEL LEUNDA

Ikerrek bederatzi urte ditu. Irunberrin bizi da, aita, ama eta arreba txikiarekin. Herri txikia da Irunberri-Lunbier, 1540 biztanlekoa. Nafarroan dago, Nafarroa ekialdean, Leire mendi zerraren magalean.

Herriko ikastolan dabil Iker, Arangoiti ikastolan, laugarren mailan. Arreba ere ikastolan matrikulatu dute gurasoek. Beraiek ez dakite euskaraz, baina herriko ikastolan matrikulatu dituzte Iker eta arreba. Seme-alabek euskara ikastea nahi dute, beraiek izan ez zuten aukera eman nahi diete. Horretarako sortu zuten ikastola.

Arangoiti ikastola 1980. urtean inauguratu zuten. Euskal Herriko ikastolarik txikiena da. Bere sorrera ez da gainontzeko tokietan zabaldu ziren ikastolen sorreratik oso ezberdina. Berrogeita hamar guraso elkartu, eraikin zahar bat alokatu eta holaxe hasi ziren. Pixkanaka-pixkanaka haur kopuruak gora egin du eta gaur egun laurogeita zortzi ikasle dauzka. Eraikinak, ordea,

gora egin beharrean behera egin du. Zahartu egin da asko, euria egiten badu ez dute jolastoki egokirik, oso leku txikia da.

Egun handia noiz iritsiko zain egon da Iker. Izan ere, Nafarroa Oinez antolatu du aurten Irunberriko ikastolak eta lan handia egin dute guztiek gauzak ahalik eta ondoen irten daitezen. Arangoiti ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak urte osoa igaro dute lanean.

Egun handia noiz iritsiko zain egon da Iker, baina negarrez ari da orain. Aitak negarrik ez egiteko esaten dio, asmatuko dutela zerbait. Baina Ikerrek ezin dio negarrari eutsi. Ez du ulertzen zergatik egin duen hainbeste euri, zergatik haizeak hautsi dituen festarako prestatuta zituzten oholtza eta toloak, zergatik urez bete diren aparkalekuak, zergatik joan den pikutara bi urte luzeko lan guztia eta zergatik ezin izango duten hain beharrezkoa duten ikastola berria egin. Horregatik ari da Iker negarrez.

Telegrapak

Zelako 15 egun. Stop. Martin Ugaldeko atxiloketak. Stop. Nafarroa Oinez... Stop. zerua goitik behera jaustia bakarrik falta jaku!. Stop. guk badaezpada geure neurrixak hartu dittugu!. Stop. diruak gastau, paper arriskutsuak erre, tententzia politikoz aldatu. Stop. hizkuntzarena ez. Stop. hori ez dogu aldatu!. Stop. arriskutsuena bera izan arren. Stop. Eskerrak laster Babadator datorrenari. Stop. Babadator baserri-tarra da. Stop. gure baserrietako lehenengo Babadatorra da. Stop. aire purrustada zorabiagarria da bere babeserako daukan arma bakarra. Stop. gaztaina danak, erre erre eginda dauzka. Stop. aurten bazkaltzera dator. Stop. je,je,je!. Stop. preparau abarka, txapel eta pañeluak. Stop. eta gasen kontrako maskarak bebai!. Stop. DEMASEKUA, SEKULAKOA, KRISTONA, SUPER ZIRRARAGARRIA!. Stop. eta arratsaldian Tximeleta jaixa frontonan!. Stop. zer da hau!. Stop. (jente hau jota dao!). Stop. ah, eta diabrutxo Elgoibarzaliori!. Stop. azkenian alternatiba!. Stop. Pil-pileanek gazte saila sortuko dau!. Stop. super modernoa eta super askea!. Stop. irakurri kultural irakurri!. Stop. eta amaittu aurretik. Stop. danon partez agur bat Oiertxori!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Xuban Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZeko
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Orain, egunean ahalik eta ordurik gehienetan lan egin beharra dute eta horretarako bolondresen laguntza ezinbestekoa dute. Dagoeneko badituzte 25 bolondres, astean egun batez etortzen direnak; Soraluze, Elgoibar, Eibar, Osintxu eta beste herri askotakoak. Gehienek, bertara joan eta ganbarako gimnasioan umearekin ariketak egiten laguntzen diete.

Zorion agurrak



Elene Alberdi
Urriak 30ian
Ze wapa, ze wafa!
Muxu bana emoteko
zain gare! ekarri pastak!
ZORIONAK!!
Pil-pileanekuen partetik.



Arianne Criado
Urriak 22 2 urte
Zorionak poliitortori!
asko maitte zaitugu!
ZORIONAK!!
Etxekuen partetik.

Xabier Bengoa
Urriak 29an 8 urte
Xabierto, Xabierto!
Lo gutxi eta bihurrikeri
askotxo! muak, muak!
ZORIONAK!
Onar eta senide danak.



Ane Gabilondo
Urriak 29a 5 urte
ZORIONAK!! Segi beti
bezain alai.
Muxu haundi bat.
Etxekuen partetik.



Koldo Heriz
Urriak 17an 23 urte
Joe, karneta etara eta ya
auto barrixa eh! herriko
jefia izango zara zure yip
barrixakin! brrrrrrrrm!
ZORIONAK!!
Naiara & E.H.E.

Merkatu Txikia

Administrari-laguntzaileak
ordezkatzeko lan-poltsa

Udalak administrari laguntzaileak ordezkatzeko lan-poltsa osatzeko lehiaketa-oposaketa deialdia egitea erabaki du.

BETEBEHARRAK

- Ohiko administrazio lanak egitea.
- Sarrera eta irteeren erregistroa.
- Bestelako lan zehatzak.

IZANGAIEN BALDINTZAK

- Batxilerga, Eskola Graduatu, Lehen Mailako Heziketa titulua izatea, edo baliokideren bat.

ESKABIDEAK

- Eskabidea egiteko fitxa Udalean jaso daiteke.
- Eskabideak epea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean azaldu eta 20 egunetara amaituko da.

Oharra

Nafarroa Oinezi laguntzeko telefonoa Irunberriko Arangoiti ikastolari laguntzeko diru bilketa egiteko telefonoa jarri dute Euskadi Irratiak eta Radio Euskadik.

902013883

Gutunak

Aurreko baten DVn Barixakuan “kasualitatez” DV irakurtzen nengoela, berriak lantzeko erak zenbaterainoko garrantzia duen ikusi ahal izan nuen. Askatasun Haizeak-en mozioko lau puntu onartu zirela esan zenuen baina Asier eta Iñakiren monolitoa ordaintzeko gastuak udalak ordainduko ez zituela esateke utzi zenuen, eta mozio beraren parte zen. Ez naiz sartuko puntu horren ez onartzea- inguruko eztabaidetan. Horrek min eman zidan plenoan bertan, baina ostiralean ez zidan gutxiago eman berria irakurtzek.

Informazio osoa ez jasotzek neri min eman zidan, baina nola neurtu daiteke herriari mezua hankamotz botatzek duen eragina? Denok gara heldu xamarrek eta bakoitzak aterako ditu bere ondorioak, baina neuk eskatu eta eskertuko neuke nere kritika hau ontzat hartzea eta eginiko akatsa ahal den neurrian zuzentzea. Besterik gabe, onak izan eta agur bero bat,

Gorka Salaberria

GAP PROGRAMAN PARTE HARTZEKO TXARTELA (Debarrenako etxeetarako)

INGURUMENA ZAINDUZ ETXEO GASTUAK GUTXITU NAHI DITUZU?

Bai, 4 GAP eskuliburuak, DOAN, jaso nahi ditut

Izena: _____ Abizenak: _____
Helbidea: _____ Zenbakia: _____ Atea/Solairua/Eskailera: _____
Posta-kodea: _____ Herria: _____ Telefonoa _____ e-mail: _____

Ebaki txartel hau; gutunazal batean sartu; onlarri jarri; eta helbide honetara bidali: GAP-EUSKADI. 3108 posta-kutxa. 48080 Bilbo
Norberaren datuak isilpekoak dira eta LOTAD legea betez erabiltzen dira

Pil-pilean Hamabostekariaren laguntzaz

Deba, Eibar, Elgoibar, Ermu, Mallabi, Mendaro, Mutriku eta Sorluze



IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Sorluze



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORLUZE

Zer irizten dotsazu?

Azken hilabeteotan, Aita Santuaren osasun egoeraren inguruko zurrumuruak etengabeak izan dira. Elizaren buru izaten jarraitu behar duen ala ahal bezain laster bere kargua utzi beharko lukeenaren eztabaida ere zabaldu dute gizartean, kristau direnen eta ez direnen artean.

Aita Santuaren egoeraren inguruan ze pentsatzen dozu?



Juan Ramon del Barrio
48 urte
mantenimentuko langilea
Kargu horretan jarraitzeko egoera onian egon bihar da, baina hori berak ikusiko dau, jarraitzeko moduan badao berak ikusiko dau, baina nik uste dot laga egin biharko leukela kargua.



Olatz Andres
21 urte ikaslea
Osasunez geizki dao eta beste baten bat jarri biharko leukie bere kargurako bera baino kapazitatua daona Osasuna lana baino lenao dao.



Jaione Unanue
48 urte
"klinika laguntzailia"
Kasu honetan beste lekuetan gertau biharko litzaken bezela beste bat jarri biharko leukie Aita Santuan postuan. Beste batzuk eukitzeko atzetik zer esan eta ein bihr daben ba hobe da beste batek betetzia kargua.



Oskar Oruesagasti
26 urte
tabernaria
Geizki iruditzen jata daon moduan egonda karguan jarraitzia, beste bat jartzia hobeto litzake, berandako be bai.



Jabier Albisua
53 urte
Autonomoa
Nere ustetan laga ein biharko leukela, daon moduan egonda, beste bat jarri biharko litzake bere karguan, nik uste dot ya ez daola erabakixak hartzeko moduan.



Leire Ariznabarreta
22 urte
erizain laguntzaila
Ba ondo iruditzen jata, ze kargua bizitza guztirako da eta naiz eta osasunez geizki egon, esaten dabe burutik ondo daola eta erabakixak hartzeko balio dabela.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@telexline.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

Telefona 75 24 09

ARRANO tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Elizondoko eremua herriarentzat



Urriaren 16an egin zen udal batzarra, EAJ, EA eta AHen aldeko botoz eta PP eta PSEEn abstentziaz onartu zuen, Udal Gobernu Tadeak Elizondoko lur eremuaren inguruan Elizaren ekonomia gaietarako Jose Maria Madina gotzain-bikarioarekin eta herriko Elizako ordezkariekin adostutako hitzarmena. Hitzarmenean zehazten denez, Elizak lur eremua Udalaren jabetzara pa-

satzea baimenduko du, eta trukean, Udalak eremuari dagozkion urbanizazio lanak burutuko ditu, lan horien artean parrokiarako sarbide egokiak egitea hego aldeko horma-ataleko bi ate erabiliz. Urbanizazio lanek 108.165 euroko aurrekontua izango dute eta Elizburu kalerako zuzeneko sarbidea egiteaz gain, eremu berde bihurtuko da gu-nea.

% 4tik %9ra bitarteko igoerak izango dira Udal zergetan

Urriaren 16ko Udal Batzarrean, Udaleko Ordenantza Fiskalen aldaketa onartu zuen batzarra, EAJ eta EArean aldeko 6 botu eta AH, PP, PSEEn aurkako 5 boturekin. Ordenantzaren aldaketa honek zenbait zergaren igoera ekarriko du kontsumitzaile arruntentz artean:

- Ur zergak: %4ko igoera izango du eta hiruhilabetero ordaindu beharreko kopuru finkoa 11,51 eurotako izango da eta 0,75 eurokoa 50m3kotik gora kontsumitu ezker. - Zaborraren zerga: %9ko igoera izango du eta 16,06euro ordaindu beharko dira hiruhilabetero. - Hirigintza baime-nak: %3,88ko igoera izango du eta 16,32 eurotik 81,57 euro bitartean ordaindu beharko da. - Ondasun higie-zinen gaineko zerga: %3,79 hiri on-dasun arruntak milako 2,05ean geldi-

tuko dira. - Ibilgailuena: %4ko igoera izango du.

Oposizioko alderdiek erabaki honen aurrean euren ezadostasuna adierazi zuten. Askatasun Haizeak-ek, bere aldetik, zabor bilketan izandako igoera kritikatu zuen, mankomunitateak kostuak jeitsi beharrean hazi egiten dituela eta Udalak irabazi asmorik ez lukeela izan behar salatuz. Honekin batera, hutsik dauden etxebizitzetako zergak handitzea ere proposatu zuen. PPK bi gehigarri aurkeztu zituen, familia ugariendako eta lanpostuak sortzen dituzten enpresendako %50 arterainoko bonifikazioak proposatuz. PSEE-k aldaketak adostu gabe egin direla salatu zuen. Alkateak bere aldetik, Soraluzeko zergak eskualdeko eta Gipuzkoako herrien baztazbestekotik behera daudela azpimarratu zuen.

Emakume baten aurkako eraso labanez

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, urriaren 17an, F.D.M. inizialak dituen 25 urteko gizonetako atzerritarra atxilotu zuen Ertzantzak, bere neskalaguna labankada bat emateagatik. Atxilotua, hilketa ahaleginez akusatuta dago eta Martuteneko espetxean dago, baldintza gabeko espetxe aginduekin.

28an Iturburu kalea itxita izango da

Udalak jakinarazi duenez, urriaren 24an Iturburu kalea, goizeko 9:00etatik 19:00etara moztuta izango da. Hori dela eta, egun horretan autobusak herriko sarreretako geltokietan hartu beharko dira.

Zakar berezien bilketa astelehenean

Datorren astelehenean, urriaren 27an, zakar berezien (altzariak, etxe-tresnak...) bilketa egingo dute mankomunitateko zerbitzuak.

Mendiolako zubiaren parean istripua

Joan zen ostiralean, bi autok elkar jo zuten Mendiola Industrialdeko zubia- ren parean. Udaltzaingoak jakinarazi zigunez, kalte materialak bakarrik izan ziren eta autoetan zijoazen pertsonak ez zuten garrantzizko zauririk jasan.

Euskal Herrian Euskarazen zozketa

Euskal Herrian Euskarazen egindako zozketan, 24.479 zombakia izan da aukeratua.



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze



Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE



Euskalgintzaren aldeko mobilizazio ugari

Joan zen ostegunean, urriaren 16an, Juan Del Olmo epailearen aginduz Guardia Zibilak egindako atxiloketa eta mihaketak salatzeke, ostegunetik hona, mobilizazio jendetsu ugari egin dira Euskal Herri osoan.

Herriko euskalgintzak (Pil-pilean, Euskal Herrian Euskaraz eta AEK), ostegun iluntzean bertan, gertaerak salatzeke elkarretaratzea deitu zuten Plaza Berrian. Honekin batera, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deitutako mobilizazioekin bat eginez, 120ren

bat lagun batu ziren ostiralean "Gora Euskal Herria Euskalduna. Bai Euskarari." lemapean egin zen elkarretaratzea. Honetaz gainera, larunbatean Donostian egin zen manifestazio jendetsurako autobusa ere antolatu zuten eta 50en bat herriatar joan ziren.

Herriko Euskalgintza taldeen esanetan, "onartezina da, euskararen eta euskal kulturaren alde diharduten talde eta pertsonen aurka holako erasuak jasan beharra". Horren aurrean, "Kontseiluaren eskaera geure eginaz, momentuko

erantzun eta mobilizaziñuek gain, euskara eta euskal kultura errespetatzen daben eragile sozial eta politikuen arteko hitzarmen estrategiko orokor baten premiñia" dagoela azpimarratu dute. Era berean, "erasuak eraso, orainartian-moduan euskararen eta euskal kulturaren alde gogoz lanian" jarraituko dutela adierazi dute, "lagatzen doskuen bitartianbehintzat".

Udalak bere aldetik, asteleheneko Gobernu Batzordean atxiloketak gaitzetsi zituen aho batez.

Nafarroa Oinez 2003



Nafarroa Oinezera joan ziren plazentziarrak, Irunberrira heltzeaz zeudela jakin zuten jaia bertan behera gelditu zela. Azkenean Agoitzen pasatu zuten eguna eta arratsaldean etxeratu ziren. Diruz laguntzeko asmoa agertu zuten.

Udalaren gaitzezpena orogarriaren apurketaren kontra

Joan zen ostegunean egin zen Udal Batzarrean, udaleko talde politiko guztien babesarekin, Asier eta Iñakiren oroitarraren apurketa gaitzes-teko erabakia hartu zuen Udalak. Askatasun Haizeak-ek aurkeztutako mozioak, besteak beste; eraso salatu, ikertu, elkartasuna adierazi eta oroitarrria berrezartzeko gastuak Udalak bere gain hartzeko eskatzen zuten. Azkenean, mozioaren puntu guztiak aho batez onartu ziren, Udalak berrezar-kuntza gastuak beregain hartzearena izan ezik, puntu honetan, EAJ, EA, PP eta PSEEk aurkako botua eman zuten.

Belarrak

Loradenda
eta belardenda

*Erosketak etxera
eramango dizkizugu*

Telf. 943 75 30 11

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34





Oier, bere arreba Maddi, amona Maria Luisa, ama Feli, aita Jon eta Natirekin (bolondresa) gimnasioko ariketa mahaian.

Bolondresen beharra aurrera egiteko

Orain hiru urte, Oier Garmendia, Eitza-Etxetxoko bi urteko mutikoa, baserri ondoko azkara erori zen jolasean zebilela. Istri-pu haren ondorioz, Oierrek burmuineko lesio larriak jasan zituen. Gurasoek, Jonek eta Felik, hemengo adituek inolako irtenbiderik ematen ez zietela ikusita, antzeko arazoa zuten beste familia batzuen bitartez atzerrira jo zuten eta hain zuzen ere, Philadelphiako konferentzia batean jakin zuten burmuineko lesioei aurre egiteko estimulazio bidezko tprograma baten berri. Ordutik hona, tratamenduaren inguruko informazio asko jaso dute eta ganbaran gimnasio handi bat prestatu ere bai. Tratamenduak ordea, emaitzak emango baditu, egunero ariketa saio luze eta iraunkorrak egitea eskatzen du eta eguneroko lan hau behar bezela betetzeko, senitarteko, adiskide eta laguntzen dieten 25 bolondres ez gain, bolondres gehiagoren beharrea daude.

A benduaren 16an hiru urte beteko dira Eitzako-Etxetxo baserriko sendiaren bizitza goitik behera aldatu zuen zoritxarreko istripua gertatu zenetik. Garai hartan, Oierrek bi urte besterik ez zituen eta kanpoan jolasean ari zela, etxeko inor konturatu gabe, atariko azkara hurbildu eta uretara erori zen. Laburra izan arren, uretan pasatu zuen denboran jasandako oxigeno faltak garuneko lesio larriak eragin zituzkion. Bost aste egin zituen Zainketa Berezien Gelan, horietatik bi koman eta beste bost aste baino gehiago plantan egin eta gero, 2.002ko otsailaren 20an etxeratu zen berriro. Jonek ongi gogoan

du etxeratu zenean zein egoeratan zegoen, "ezeukan ezereen noziñorik, ez zeban ikusten, sentsibilidade barik zeguan... mundutik zihero deskonektata, begetal bat zirudienn". Neurologoak ez zien inongo esperantza edo aurrerabiderik eskeini, "burmuineko paralisia" diagnostikatu eta etorkizunerako tratamendu bakarra aholkatu zien, "maitasun asko eskeini eta eguzkixak emon deixola", eta aurrerapenak etortzekotan berez etorri beharko zutela. Egoerak berak eta ezer egiteko ezintasunak, erabat lur jota utzi zituen. "Hemen ez dotsue eskeintzen ezebe. Oierren kasuan, oxigeno faltagaittik hildako neuronak errekerperatzerik

ez dagueenez... ez omen dago ezer egite-rik. Eguna zentro baten laga edo ohian erdi drogauta lagatzia da emoten daben irtenbide bakarra, ez deitzen molestau, baina hori ez zan umiandako soluziñua eta beraz, guretako bez".

Philadelphiako konferentzia

Oier etxeratu eta bi hilabete beranduago, Philadelphian ezagututako programa bat jarraitzen zuen Markinako mutiko baten kasua ezagutu zuten. Markinako familiaren kasua ere, burmunineko lesioak zituen mutiko batena zen eta tratamenduarekin lortutako aurrerapen



EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69





Bista eta mugimenduaren arteko harremana eta oreka lantzeko, arnes batekin zintzilik mugitzen norabide guztietara.

“berak barruan dana sentitzen dau baina bere gorputzian dago preso, ezin dau kanpora adierazi”

handien berri eman zien Joni eta Feliri, “harrittuta gelditu ginan”. Horrek animatuta, tratamendua ezagutzera Philadelphiara joateko erabakia hartu zuten. “Lehenengoz entzun genduanian errezeluak genkazen eta urtebetian erdipurdiz ibili ginan baina hurrengo urtian berriz jua ginan eta ya serixo lantzia erabaki genduan”, azaldu digu Jonek. Doman-en tratamenduak, pertsonaren bizitzako alor guztiak landuz (elikadura, hezkuntza, fisiologia, ikusmena, ukimena, entzumena, komunikazioa...) eta estimulatuz (Oierren kasuan; “deskonektatuta gelditu ziran neuronei elkarrekin lan egiten erakutsita”), pertsonaren garapen fisiko eta mental osoa lortzea du helburu eta horrek lan handia eskatzen du. “Hasierako hilabetietan, etxekuekin eta lagunekin hasi ginan baina dana haunditzen haunditzen jua da. Oin hilabete batzuk bolondresak topatzeko oharrak ipini genduzen kalia eta bost bolondres guriago dauzkagu laguntzen baina ez da nahikua”.

Aurrerapen handiak

Tratamenduak, hasierako desesperazioa bazterrerera utzita aurrera egiteko bide bat eskeini die Jon eta Feliri, “tratamenduakin hasi ginanetik horretara oratu gara”. Jon eta Felik etengabe jarraitzen dute gaiarekiko informazioa jasotzen eta harritzeko moduko jakinduriak azaltzen dituzte irakaskuntzaren prozesu mentalak. Argi daukate zein den bidea “estimilaziñuakin zeozer lortzia nahi bada, ahal danik ordurik gehixen lan egin behar da. Ez dakiguna da noraino



Tamaina handiz ordenagailuan inprimatutako hitz bikoteak erabiltzen dituzte irakurketa lantzeko.

helduko dan, batzuk asko aurreratzen dabe eta beste batzuk gutxiago. Argi dagauna da, ezer ez badozu egiten, ez dala ezer lortzen”. Oier noraino heldu daitekeen ez badakite ere, azkenengo ebaluazioek izugarriko aurrerapenak egin dituela erakusten dute eta eurak ere ziur daude horretaz, “ikus bihar zan hasiera baten zela zeuan eta zela dauan oin. Askoz gutxiago gaixotzen da, etxeratu zanian ez zeban ikusten eta oin bai, postura aldetik hobeto dago, barne sentimenduak adierazten saiatzen da... ze berak sentitu dana sentitzen dau beste edozeinen moduan baina bere gorputzian dago preso, ezin dau adierazi”. Tratamenduak barne mundu hori elikatu eta kanporako komunikazioa bideratzen

Orain, egunean ahalik eta ordurik gehienetan lan egin beharra dute eta horretarako bolondresen laguntza ezinbestekoa dute.



Katamarran egiteko mugimendua behin eta berriz errepikatzen dute ariketa honetan, mugimendu hori barneratu dezan. Lau lagun artean egin beharreko ariketa da baina bolondresen faltan hiru pertsonen artean egin behar izaten dute gehienetan.



Txirristaren beherakoak ematen duen erreztasunak, berak eragindako mugimendua eta espazioa harremantzen ditu. erakusten dio estimulazioaren bitartez.

Bolondresen beharra aurrera egiteko

Orain, egunean ahalik eta ordurik gehienetan lan egin beharra dute eta horretarako bolondresen laguntza ezinbestekoa dute. Dagoeneko badituzte 25 bolondres, astean egun batez etortzen direnak; Soraluze, Elgoibar, Eibar, Osintxu eta beste herri askotakoak. Gehienek, bertara joan eta ganbarako gimnasioan umearekin ariketak egiten laguntzen diete eta beste batek, Oierri irakurtzen eta objektuak ezagutzen irakasteko materiala prestatzen laguntzen die (ipuinak). Elgoibarko Nati Garitano da bolondresetako bat. Astean bi orduz joaten da eta bere hitzetan, “izugarriko satisfaziñua emoten dau pertsona batek aurrera zela egiten daben ikustiak. Ez da jentziak pentsatzen daben moduan ohe onduan egotia penaz. Ariketak egitia da, hitzak erakustia, berakin barre egitia eta beste mila kontu”. Pil-pileaneko kazetariok ere, Natik bezala, sentimendu berdinak bizi izan ditugu el-karrizketa egitera joan eta Oier irriparez ikusi dugunean. Hitzaz azaldu ezin daitezkeen sentimenduak.

Zure laguntza eskeini nahi badiezu, Eitza-Etxetxoko 943753110 telefonora deitu edo bertara joan besterik ez duzu, beso zabalik hartuko zaituzte eta bihotzez eskertuko dizute eskeinitako laguntza.

Jonek eta Felik bere aldetik, orain arte laguntza eta babesa eman dieten pertsona guztiak eskertu nahi ditu “bihotzez”, eurak gabe ezinezkoa litzatekeelako programa betetzeko eta Oierrek lortu dituen aurrerapenak lortzea.

Musika Eskolaren egoitza eskaera Udaleko Hezkuntza Batzordeari



Musika Eskolako arduradunek adierazi digutenez, aurtengo ikasturte hasieran, Udaleko Hezkuntza Sailari eskolarendako egoitza berri bat eskatzera behartuta sentitu dute euren burua. Eskaera hori aurkezteko arrazoi nagusia, Eusko Jaurlaritzako begirale batek, orainartean jardun duten mo-

duan institutuan eskolak ematen jarraitzeak ez dituela legeak onartutako arauak betetzen jakinarazi izana omen da. Begiraleak adierazi dienez, musika eskolendako araudiak agintzen duena, eskolak bere egoitza propioa izatea omen da eta egoera horretara bideratzeko neurriak hartzen ez badira, eskola ixteko aukera ere ez omen du baztertzeko.

Maite Oregi Udaleko Hezkuntza Batzordeburuak adierazi digunez, Udalak Musika Eskolagaiari irtenbidea eman eta epe motzean Kultura eta Hirigintzako zinegotziekin batera, taldeendako egoitzen eta Kultur Etxearen egitasmoa eztabaidatzen hasteko asmoa omen dute. Maitek jakinarazi digunez, Ikastola Zaharraren eraikina omen da aztertuko duten aukera nagusia.

Baserrien gidaliburuaren aurkezpena

Azaroaren 4an, martitzena, arratsaldeko zazpiretan aurkeztuko dute Udaletxean Soraluzeko Baserrien Gidaliburua. Liburuak 128 orrialde ditu eta Soraluzeko 88 baserrien berri ematen du, baikoitzaren hainbat datu eta argazki jasotzen dituelarik. Aurkezpenean, liburu egiten jardun duten Pil-pilean eta Kontrargiko egileak izango dira eta baita, argitalpena bul-tzatu eta babestu duten Udaleko eta Debemeneko ordezkariak ere. Agitaratuko diren 800 aleak, aurkezpenean eta Gaztañerre azoka egunean jarriko dira salgai..

Zirikadak eta Eztenkadak liburuaren aurkezpena



Urriaren 30ean, eguena, arratsaldeko zazpiretan aurkeztuko dute Soraluzeko Udaletxean, Zirikadak eta Eztenkadak liburuaren berrargitalpena.. Liburuaren aurkezpenean, egileez gain, eibartarren eta plazentziarren arteko umorearen adierazgarri, Eibarko "Abadiño" eta Plazentziako Martin eta Inazio Iñurrieta anaiak izango dira. Udalak bere aldetik, liburuaren 50 ale erosi ditu herrian saltzeko.

BABADATORr!

Poliki poliki aurrera doaz 2003.urteko Gaztañerre Azokaren inguruko prestaketak.

Baba Txapelketan 7 bikote

Oraingoz zazpi bikote edo lagun taldek eman dute izena Pil-pileanek antolatutako Baba Txapelketan. Udalak, babak prestatzeko 12 su jarriko ditu Plaza Zaharrea eta beraz, dagoeneko bost lagun talde gehiagorendako lekua gelditzen da. Izena emateko Pil-pileanera jo behar da.

Bazkaria Kiroldegian

Aurtengo babajan bazkaria Kiroldegian egingo da. Guztira 150 lagun baino gehiagorendako lekua eta jana izango dira bertan. Dagoeneko, salgai daude txartelak, Gila, Arrano, eta Edurtza tabernetan eta Iratxo goxotegian. Bazkariak 15 euroko (13 ikasle eta bazkideendako) prezioa izango du.



Pil-pileanek atera dituen karteletan, baba eta gartzaina erreak dira protagonista.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



Aitor Madrid KZgunearen egoitzan izaten da arratsaldero, interneten inguruko argibideak ematen.

550 internauta berri

18 Hilabete dira Sorraluzen Jaurlaritzaren Konekta Zaitetz programaren barruan KZgunea zabaldu zenetik. 550 pertsona baino gehiagok jaso dituzte eskolak.

2002. urteko apirilaren 5ean zabaldu zituen ateak KZguneak. Denbora tarte honetan 550 pertsona baino gehiago igaro dira bertatik. Hasierako hilabeteetan, erabiltzaile uholdeari behar bezelako harreta eskeintzeko bi lagun ziren kZgunean lan egiten zutenak baina joan zen urteko urritik aurrera, Aitor Madriderik bakarrik zuzentzen du gunea. Orain, erabiltzaileak gutxitu direnez, KZgunea arratsaldez bakarrik dago zabalik eta hala izango da jendea joaten den bitartean.

Urte eta erdi herrixan KZgunia zabaldu zala. Helburuak bete dira?

Balantzea oso positiboa dala esan neike. Jentia oso ondo erantzun dotsa zentro honek eskaintzen dotsanari eta. Hasieran eskaintzen ziran bi zerbitzueri (nabigaziñua eta internetian hezitza) beste zerbitzu batzuk gehitu jakoz. Herriko bi elkartek kZguniarekin elkarlanian bere web orriak martxan jarri ditue:

Ezoziko Ama Abesbatza <http://comunidades.kzgunea.net/EzozikoAmaAbesbatza/EU/default.htm> eta Pil-pilean <http://comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU/default.htm>

Eta hortxe dare eskuragarri nahi daben edozeinendako. Bestalde, beste bi zerbitzu eskaintzen ditugu dendarixentzako kurtsuak (900 500 900 telefo-

nuan) eta Kzprestakuntza langiliendako kurtsuak dira.

Ze ikastarok izan dau arrakasta gehixen?

Ziurrenik arrakasta gehixen Internet KZgunea izan dau. Bi asteko kurtsua da, astelehenetik ostiralera eta egunero bi orduko eskolak. Bertan, interneta eta ordenagailua erabiltzeko oinarrizko eza-gupenak jasotzen dittu erabiltzailiak. Beste kurtsu bat, oso gomendagarria dana, hain gaztiak ez diranendako, Nagusiweb izenekua da. Astebete irauten dau eta bertan oso modu erreziakomunikabide berri hau zela erabili azaltzen da.

Zertarako erabiltzen dau jentia interneta?

Komunikabide berri honek eskaintzen dittuan aukerak oso zabalak dira. Internetian jentia gehixen erabiltzen dittuan zerbitzuak web orrixak eta posta elektronikua dira. Egin kontu, web orri-xetan edozer gairi buruzko informazi-ñua etaratzeko modua daguala eta posta elektronikuen bidez (e-maila) mezuak bialdu leikez, era errezi, merke eta azkarrian. Guzti hau, edonun eta edonoiz, interneterako konekzioa izatia da baldintza bakarra.

Internetari dagokixonez zelako garapen maila dauka hemengo gixentziak?

Garapena oso azkarra eta haundixa izan da azken urte honetan EAE mailan. Estatuarekin konparatuta, Euskadi da internet gehixen erabiltzen dan tokixa. Europari begira aldiz, han gehixago erabiltzen dabe guk baino. Enpresetan eta lan munduan lan asko dago egiteko oindio.

Urte eta erdi honetan bizitako anekdotaren bat?

Zentruan gertatutako pasartiak asko izan dira. Kurtsoa bukatu eta erabiltzailen batzuk erregaluekin etorri izan dira; bonboiak, pastelak eta holakuekin bere esker hona adierazteko, eskaintako tratu eta erakutsi dotsegunagatik. Hunkigarria benetan. Talde bat egon da, kurtsuaren azken egunian hamarretakuakin etorri jakuna.

Noiz arte izango da zabalik KZgunia?

KZgunia herritarrei zerbitzu bat emoteko zentrua da, beraz zerbitzu hori emoteko eskaeria baldin badago, Sorraluzeko kZgunea zabalik egongo da. Jentia eskatzen badau nabigazioa eta eskolak emongo dira, eta bestela ba... Oindio hemendik pasau ez diranak, kZgunetik pasatzeko animatu nahiko nittuzke. Ez eukitzeko bildurrik, etortzeko lasai, modu errezi baten ezagutuko dabela internet. Erreztasun asko emoten dira eskolak jasotzeko eta gauza asko lortu leike internet erabillita.

Soraluzeko Pelota Taldea

“Pelotari onenak kanpuan dabiz eta herrixan ez dago umerik pelotarako”

Agustin Txurruka orain 10 urte, pelota taldeko arduradunei laguntzen hasi zen eta gaur egun berak bakarrik zuzentzen du taldea. Orain bi urte, Gipuzkoako txapeldunak ziren eta orain ia ume gabe daude. Oso kezkatuta dago Soraluzeko pelota taldearen etorkizunaz eta eta ez dio atera-bide errezik ikusten epe motzean.



“Frontoia itxi aurretik oso maila onian genden. Gipuzkoako txapeldunak ginan.”

Agustin Txurruka ia egunero joaten Kiroldegiko frontoira gaztetxoak entrenatzera.

Zela dago pelota taldea gaur egun?

Gaur egun kadeteen mailako talde bakarra dago pelota taldean eta hiru pelotari gazte bakarrik. Umiak be oso gutxi dare. Arduradun neu bakarrik.

Zein izan da egoera horretara heltzeko arrazoia?

80-90. Hamarkadan oso ume gutxi jaixo zan. Hori ez da plazentziako arazua bakarrik, herri txiki danetan arazo berdina dago, ume faltiak. Oin danak futbolian jokatzeko dabe eta futbolian bakarrik. Futbolian be taldiak osatzeko arazuekin dabiz.

Frontoia itxi zelako eragina euki zeban?

Frontoia itxi aurretik oso maila onian genden, Gipuzkoako Herri Arteko txapeldunak ginan. Hobeto ezin. Hiru talde genkazen eta ume asko.

Zer gertatu zan frontoia itxi zebenian?

Frontoia itxi zebenian herriko pelotari asko kanpoko klubetara jua ziran;

Iñaki Jauregi Añorgara, Onar Muguruza Elgoibarko Lagunak elkartera (oin Elgetan), Jon Arrieta, Aritz Laskurain, Antxon Alberdi, Zuhaitz Rodrigez eta Erlei Txurruka Elgetako Oskarbirra. Horrendako txarrena bidaien kontua izan da. Herrikuak Batzokiko frontoian egon bihar izan ginan bi urtian eta askok laga egin zeben eta futbolera pasatu ziran. Oin gaztetxo gehixenak futbolian dabiz.

Kanpora jua ziranak etortzeko ez dago aukerarik?

Ez. Ez dago inungo aukerarik. Bakoitza bere kluba dauka eta maila altuaguetan jokatzeko dabenez, harek ezin dabe etorri hona etorri berriro.

Etorkizuna zelakua ikusten dozu?

Datorren urtian oingo hiru kadetiak badoiaz eta ez da izango umerik kadeteko taldiari eusteko be. Ez bada ezer aldatzen federaturik bare egongo gara. Pelotari onak kanpuan dabiz eta herrixan ez dago umerik.

Medizaletasuna

Mutrikuko Ibilaldia

Domeka hontan Mutrikun 2002-2003 urteko finalista eguna ospatuko da. Egun hontarako Soraluzeko mendi taldeak autobusa antolatu du.

Mendi martxari goizeko bederatziretan hemango zaio hasiera Mutrikuko Udaletzeko plazan eta bukaera eguerdi partean izango du.

Futbola

Burumakur

Regionalak ez du burua altxatzen eta sailkapeneko atzeko postuetan jarraitzen du bi punturekin. Azken partidua Orioko taldearen aurka jokatu zuen eta 5 eta 0 ko emaitzaz galdu zuen. Taldeak denboraldi hasera hontan, bere gaztetasunagatik, esperientzi falta duela nabari da.

Jubenilak ere regionalaren antzera dabilta eta jokaturako azken partidua 3 eta 1 galdu zuten Behobiaren aurka.

Kadeteak Gorantza.

Berri pozgarrienak gaztetxoek ematen dizkigute, azken bi partiduetan garaien garrantzitsuak lortu dituzte eta sailkapeneko aurreko postuetara urerratu dira. Azken partidua Beasainen aurka jokatu zuten eta 4 eta 0-ko emaitzaz irabazi zuten.

Yoga

Izen ematea zabalik

Soraluzeko polikiroldegian aurtengo kurtsoan yoga praktikatzeko aukera izango da. Ikastaroak astelehen eta asteazken arratsaldetan izango dira eta ordutegia 20:15tik 21:45ra izango da.

Izen ematea telefonoz egin behar da eta telefono zenbakiak honakoak dira: 943200425 edo 615769110 (Javi).

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

JABIER ALBERDI



KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Eñaut Unamuno Loiti

“Formalak izan, euskera erabili eta segi aurrera”

Orainguan Eñaut Unamunori egokitu jako gure galderei erantzutia. Galdera zintzo askuak egin dotsaguz baina berak irri-farre maltzur batekin, zirikatzaile onen moduan, grazia berezi batekin jaurti doskuz erantzun danak. Galderak momentuan prestatu dittugula ez bageneki, erantzunak etxian preparauta ekarri dittuala pentsauko genduke. Baina ez, pentsatu barik datorkixona esaten dau, horrek dakartzan abantaila eta desabantailekin. Irakurri eta gozatu, badago zerekin eta.

Izen, abizenak, edadia eta lanbidia.

Eñaut Unamuno Loiti, 24 urte eta fre-sistia.

Zelakua da Eñaut?

Xelebria, juergista galanta eta euskera maite dabena.

Zenbakixa, koloria, animalixa eta abestixa.

Zenbakixa hirua, horixa, animalixa ez daukat eta edozein abesti euskaldun.

Ze gustatzen jatzu egittia zure denbora librian?

Mendirra juatia gustauko jatan baina sofán egoten naiz telebista ikusten, kantzautu etortzen naiz lanetik eta.

Kontauko al doskuzu txikitako oroitzen bat?

Behin hartu neban aizkoria eta jarri zosten egur haundi bat eta gainian beste bat txikixa mozteko. Ipini zosten toki baten eta nik golpe bakoitzian josten neban aizkoria pixkat lenao, eta orduan gertuago jarri zosten eta nik gertuago josten neban eta orduan ipini zosten gertuao eta ebagi neban hankia.

Hiru desio.

Euskal Herri askatu eta euskaldun bat, Euskal Herrixa ez galtzia eta osasuna eukitzia bizitza hontan.

Zerk emoten dotsu enbirixia?

Juergetan kontrolatzen dakixenak.

Beti gogoratuko dozun eguna.

Donostian Ertzainen aurrian gurasuekin korrika egin neban eguna.

Manixaren bat.

Sofán egotia telebista ikusten.

Telebistako saio bat.

Beti ikusten dotena Embrujadas da.

Zeri ez zontsake ezetzik esango?

Neska polit bati.

Bertso Begiz

Neska polittik hurbilduz gero ez dotsa egingo uko Euskal Herrixa eta euskara inoiz ez dittu salduko. Sofán eta parrandan hor dabil txandan txandan. Ez al da kontrolatuko? Bizitza txarra ez daramazu aurrerantza segitzeko.

Eneko Beretxinaga

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Eñaut Unamuno

Aholkurik onena?

Formalak izan, euskera erabili eta segi aurrera.

Zelakua izan bihar da pertsona bat zure gustokua izateko?

Gaztia, euskalduna bada hobeto, nere edade ingurukua, fisikuak igual dosta baina burua eta karakterra daukana.

Gustoko menua

Babagorri eder batzuk lehenengo, oilaskua gero eta postrea, kafia eta purua.

Soraluze....

Herri polit bat mendi artian sartutakua. Neska asko darella eta gehixao egongo balira hobeto baina alkate txarra daukagula.



**Kiru
Muntaiak S.L.**

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65



**Hnos. BENITO
ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Argazki zaharra



Izarre baserrikuak XX. mende hasieran

Argazkixan, XX. mende hasieran San Andres auzoko Izarre baserriko familia ataxan. Atzenengo ilaratik, ezkerretik eskuinera hasita; Manuel Barrenetxea, Patxi B., Josefa B., Joxe Mari B., Rufina B., 2. ilaran ezkerretik; Viviano Artola, Maria B., Eustakia B., Silvestre Santa Maria, 3. ilaran ezkerretik; Antonia Unamuno, amama eta aittitta, eta Joxe Barrenetxea.

Julian Bandaormaetxeak lagatako argazkia

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU

943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Einer Ostolaza

Erantzuna: Aldasoro

76. aleko irabazlea: Andoni Odriozola

Erantzuna: Muneta

GAZTELUPE
taberna



tel: 943 75 20 81

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96



Limpiezas Trejo, S.L.

**Limpiezas
industiales**

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE



VIDAL frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055



OINEZ 2003

HARRIZ HERRI, IRUNBERRI

Caja Laboral-Euskadiko Kutxa: 3035 0058 35 0580077630

Caja Rural de Navarra: 3008 0042 51 1203795925

Caja Navarra-Nafarroako Kutxa: 2054 0041 86 9134923815

Santander Central Hispano: 0049 2572 24 2514210130

Kutxa: 2101 0381 05 0011331584

**Ikastola berria
eraikitzeko zure
laguntza behar dugu**

**Para construir la nueva
ikastola necesitamos
tu ayuda**




Ikastolen Elkartea

www.nafarroaoinez.net



Fresaketa teknologia



SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

SUSTRAI COLINA **AMETS ARZALLUS**
bertsolariak



UNAI ELIZASU
gai jartzailearekin

VI. Bertso Afaria

Urriaren 31an 21:30etan
Armendi jatetxean

Prezioa:

Bazkide, ikasle eta langabetuak: 18€
Gainontzekoek: 20€

Eta afalostean...

Soraluzeko IV. Bertso Paper lehiaketako sari
banaketa

BarKatu

Bertso ikuskizuna

Sustrai Kolina eta Amets Arzallusen eskutik

Txartelak aurrez erosi
Gila, Arrano eta Edurtza
edo deitu 943 751304 telefonora
Urriaren 27a baino lehen

